Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

2973

EBAZPENA, 2009ko apirilaren 20koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Bastidako (Araba) «Subida al Olmo» kaleko 19ko higiezina desafektatzeko espedienteari hasiera emateko, jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko dena.

Uztailaren 3ko 7/1990 Euskal Kultura Ondarearen Legeak (abuztuaren 6ko EHAA, 157. zk.) bere 36. artikuluan dio galerazita dagoela sailkatutako edo inbentariatutako kultura-ondasunak eraistea, aurrez aurri-deklarazioa eta tokian tokiko Foru Aldundiaren baimen berariazkoa eskuratu gabe, eta beharrezkoa dela, gainera, Eusko Jaurlaritzak desafektazioaren gainean emandako aldez aurretiko baimena.

Lege hori garatzeko, azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua eman zen: kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzko eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzko Dekretua (azaroaren 26ko EHAA, 226. zk.).

Bastidako Udalak Subida al Olmo kaleko 19ko higiezina desafektatzea eskatu zuen, aurri-egoeran dagoela arrazoituz.

Higiezina oinarrizko babesa duen elementutzat jotzen du abenduaren 17ko 305/2002 Dekretuak, alegia, Bastidako (Araba) Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen duen eta haren babes-araudia ezartzen duenak (2003ko urtarrilaren 13ko EHAA, 7. zk.).

Txosten teknikoak, aurri-espedienteak eta bideratu diren jarduketak ikusita, Subida al Olmo kaleko 19ko eraikina zati batean desafektatzea proposatzen dugu. Horretarako, Babes Araudiko V. kapituluko 3, 4 eta 6 zerrendak berriz idatziko dira, baina oraingo fatxadari eusteko betebeharra ezarriko da.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamena aztertu ondoren eta uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 36. artikuluan eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat, azken hori sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasuna aurri egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa dena, honako hau

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

2973

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente de desafectación del inmueble n.º 19 de la c/ Subida al Olmo de Labastida (Álava).

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 157, de 6 de agosto) establece en su artículo 36 la prohibición del derribo de los bienes culturales calificados y de los inventariados sin la previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, siendo preciso asimismo la autorización previa del Gobierno Vasco sobre la desafectación.

En desarrollo de la citada normativa se dicta el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos (BOPV n.º 226, de 26 de noviembre).

El Ayuntamiento de Labastida solicitó la desafectación del edificio n.º 19 de la c/ Subida al Olmo, considerando que se encuentra en situación de ruina.

El inmueble es elemento de protección básica en virtud del Decreto 305/2002, de 17 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Labastida (Álava) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 7, de 13 de enero de 2003).

A la vista de los informes técnicos, los expedientes de ruina y las actuaciones seguidas, se propone la desafectación parcial del edificio de c/ Subida al Olmo n.º 19, mediante la nueva redacción de los listados 3, 4 y 6 del Capítulo V del Régimen de Protección, estableciendo la obligatoriedad de mantener la fachada existente.

Vista la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, así como en el artículo 17 del Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos y demás normativa de aplicación,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bastidako (Araba) Subida al Olmo kaleko 19ko higiezina zati batean desafektatzeko prozedura hastea. Horretarako, oinarrizko babesa duten elementuen 3. zerrendatik kendu eta babes morfologikoa duten elementuen 4. zerrendan sartuko da, bai eta babes partziala dutenen 6. zerrendan ere. Higiezin hori oinarrizko babesa duen elementutzat jotzen du abenduaren 17ko 305/2002 Dekretuak, alegia, Bastidako (Araba) Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzen duen eta haren babes-araudia ezartzen duenak (2003ko urtarrilaren 13ko EHAA, 7. zk.).

Bigarrena.– Informazioa jendaurrean jartzeko epea zabaltzea eta interesdunei entzuteko izapidea egitea, hartara, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 20 eguneko epean egoki iritzitako alegazioak eta dokumentuak aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan xedatutakoari jarraituz. Espedientea Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpenaren berri ematea interesdunei, Bastidako Udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailari, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ere, eta, horrekin batera, jakinaraztea ebazpenaren aurka ez dagoela errekurtsorik aurkezterik, egintzaren izaera izapide hutsa den aldetik.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 20a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

RESUELVO:

Primero.– Incoar procedimiento de desafectación parcial del edificio incurso en procedimiento de ruina de la c/ Subida al Olmo n.º 19 de Labastida (Álava), elemento de protección básica en virtud del Decreto 305/2002, de 17 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Labastida (Álava) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 7, de 13 de enero de 2003), eliminando dicho elemento del listado 3 (protección básica) e incluirlo en el listado 4 (protección morfológica), así como en el listado 6 (protección parcial).

Segundo.– Abrir un periodo de información pública, y conceder trámite de audiencia a cuantos resulten interesados para que en el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, conforme a los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la presente Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Labastida, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco, comunicándoles que frente a la misma no cabe la interposición de recurso alguno, al tratarse de un acto de mero trámite.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.